

2013KO IRAILAREN 26N EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2013ko irailaren 26n, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI
- MIREN LUKE VERDES CEARRA

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2013KO GARAGARRILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2013ko garagarrileko 29ko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkari jaunak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

182/2013.- *IRATXE BATUREN IBARZABAL ANDREAK, URKITZA IKASTETXEKO IKASLEEN GURASO ALKARTEAREN IZENEAN, eskola agenda bat egiteko eskatutako laguntza onestea.*

183/2013.- *Udalak 1222/2010 prozeduran amorea emotea.*

184/2013.- *U.E 2-4ko C lursaileko obrak etetea, kautelazko neurri lez.*

185/2013.- *IÑIGO DE LA HOZ jaunari, Gure Txoko Musikarte alkartearen izenean, garagarrilaren 27an San Pelaioko 01 tabernaren ondoko aparkalekuan kontzertu bat egiteko baimena emotea .*

186/2013.- *2013ko herriko jaietan, txosnak jarteko esleipenera aurkezteko eta horreen arduradunek bete beharreko baldintzak arautzen dauzan oinarriak onartzea.*

187/2013.- *“Mutua de Seguros Pelayo” enpresak imitako berraztertze errekurtsioa ezestea.*

188/2013.- *BIRJIÑE BILBAO ABIO andreari, ITXAS-ALDE DANTZA TALDEAREN izenean, garagarrilaren 30eko jaialdia ospatzeko baimena emotea.*

189/2013.- *Alkatea 2013ko garagarrilaren 31tik abuztuaren 14ra arte Bakiotik kanpo egongo dan ezker, Iker Muruaga Goikoetxea alkateordea izendatzea alkate zereginetan jardun daian.*

190/2013.- *Carmelo Renobales Sheifler eta D^a Concepción Hernando Herreros jaun-andreei maiatzaren 21eko 93/2012 dekretu bitartez emondako lizentzia luzatzea.*

191/2013.- *JON ANDER BILBAO SACRISTÁN jaunari Hondartza Futboleko txapelketea antolatzeko baimena emotea.*

192/2013.- *Haitz Uriarte Garai andreari euskal preso eta iheslarien aldeko alkarretaratzea egiteko baimena emotea.*

193/2013.- *Biotz Egurrola Anakabe andreari, Aberrigintza kultur taldearen izenean, Txakolingunean berbaldi bat egiteko baimena emotea.*

194/2013.- *Pernando Mendiguren jaunari AXI URDAIBAI KANPUSA antolatzeko baimena emotea.*

195/2013.- *IKER MURUAGA GOIKOETXEA alkateorde jauna izendatzea, Garajeen Kontzesiodunen Komunitadeak egingo dauan batzarrean Bakioko Udala ordezkatzeko.*

196/2013.- *Abuztuaren 6an azaleko minbizia prebenitzeko kanpaina egiteko baimena emotea.*

197/2013.- *Gironako “Agrupamente Escolta i Guia San Narcis” alkarteari lo egiteko baimena emotea.*

198/2013.- Arnal Larrazabal jaunari, Mimen-Ondoko auzokideen komunitatearen izenean, Kultur Etxeko bideo gelea erabilteko baimena emotea .

199/2013.- BIRJIÑE BILBAO ABIO andreari, ITXAS-ALDE DANTZA TALDEAREN izenean, abuztuaren 15eko ekitaldia (Andra Mari eguna) ospatzeko baimena emotea.

200/2013.- Mikel Zuniga Elejabeitia jaunari eta Alberto Urrutia Iturmendi jaunari, BAKIO SURF TALDEAREN izenean, "BST EGUNA" ospatzeko baimena emotea.

201/2013.- MARKEL LOPATEGI GOIKOETXEA jaunari, MUNGIA RUGBY TALDEAREN izenean, Hondartzeko RUGBY TOUCH-A egiteko baimena emotea.

202/2013.- Egoitz Abio Arrillaga jaunari herriko jai eremuan hiru txosna iminteko baimena emotea.

203/2013.- Noemi Martínez Font andreari Mimen-Arteko auzokideen komunitatearen izenean, Kultur Etxeko bideo gelea erabilteko baimena emotea.

204/2013.- "SEGUROS BILBAO COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A." enpresak egindako erreklamazioa baiestea.

205/2013.- Bakioko 2013ko herriko jaien harira, Euskadiko Azokari Autonomoen Alkartegaz 2013ko garagarriaren 30eko kontratua sinatuta dala eta, kontratu hori onartzea.

206/2013.- AGUSTÍN SÁNCHEZ GONZÁLEZ jaunari frutak eta barazkiak saltzeko baimena emotea.

207/2013.- LORENZO SÁNCHEZ GONZÁLEZ jaunari frutak eta barazkiak saltzeko baimena emotea.

208/2013.- JOSÉ MANUEL GARCÍA GUERRAS jaunari jatekoak (pastak...) saltzeko baimena emotea .

209/2013.- MARÍA JUANA CRIOLLO TOCAGÓN andreari arropa eta bitxiak saltzeko baimena emotea.

210/2013.- JAVIER FERRERO BALAGUER jaunari arropa eta euritakoak saltzeko baimena emotea.

211/2013.- MARIA ANTONIA ÁLVAREZ JARAMILLO andreari burdindegiko produktuak saltzeko baimena emotea.

212/2013.- JOSÉ IGNACIO DE DIOS DEL TESO jaunari oinetakoak saltzeko baimena emotea.

213/2013.- Silvia Caballero Ensunza andreari, "Bar Bakio", "Kai", "Urzabal", "Birjilanda" eta "Itxas Argi" tabereren izenean, kubatar musikako ikuskizun bat egiteko baimena emotea abuztuaren 29an.

214/2013.- GARBIÑE QUINTANO SOLABARRIA andreari umeentzako arropa saltzeko baimena emotea.

215/2013.- ALFREDO FERNANDEZ GONZALEZ jaunari oinetakoak saltzeko baimena emotea.

216/2013.- JUAN CARLOS BARAINCA GUARROTXENA jaunari esnekiak saltzeko baimena emotea.

217/2013.- Antonio Ibarguengoitiari baimena emotea abuztuaren 31n desafioaren ikuskizuna antolatzeko.

218/2013.- "CIRCO HERMANOS ROSSI, S.L." enpresari ikuskizunak egiteko baimena emotea.

219/2013.- Alkatea 2013ko irailaren 2tik 8ra arte Bakiotik kanpo egongo dan ezker, honen bidez, Iker Muruaga Goikoetxea alkateordea izendatzea.

220/2013.- JUANA LARRAZABAL MADARIAGA andreari barazkiak saltzeko baimena emotea.

221/2013.- LORENZA URRUTIA AROSTEGUI andreari barazkiak saltzeko baimena emotea.

222/2013.- MARIA ISABEL ABAJO CAMARERO andreari fruta, barazkiak, irasagarra eta sagardoa saltzeko baimena emotea.

223/2013.- MIREN LOREA EGUSQUIZA ZUGAZAGA andreari barazkiak saltzeko baimena emotea.

224/2013.- KARMELE GAMINDE BILBAO andreari barazkiak saltzeko baimena emotea.

225/2013.- AINHOA OLAZAR DE LA CONCEPCIÓN andreari barazkiak saltzeko baimena emotea.

226/2013.- YOU ABIO URRUTIA jaunari barazkiak saltzeko baimena emotea.

227/2013.- JUAN ANTONIO URIARTE REMENTERIA jaunari barazkiak saltzeko baimena emotea.

228/2013.- IDOIA BELLOSO MIRANDA andreari barazkiak saltzeko baimena emotea.

229/2013.- AMAYA AMONDARAIN URRUTIA andreari eta ALBERTO CALABOZO OLAZARAN jaunari lorak saltzeko baimena emotea.

230/2013.- Mendialdeko bideraketaren eta Ondarreko ponpaketa lanen ganeko proiektu teknikoa eta obrak onestea.

231/2013.- Bakioko Udala 442/13-2 errekurtsora bertaratzea eta beharrezko letratu eta prokuradoreak izendatzea.

232/2013.- Iratxe Barturen Ibarzabal eta Karmele Barturen Ibarzabal ahizpei lizentzia emotea, Gazadi baserrian (Gibelorratzagako San Pelaio auzoan) egindako etxebizitza bi lehenengoz okupatzeko.

233/2013.- Maite Abio andreari garaje modura erabili beharreko eraikinaren obrak legeztatze lizentzia emotea.

234/2013.- Irigasa XXI S.L. enpreseari lizentzia emotea, Basigoko Bide Nagusia kaleko 77.eko "Rosario Enea" eraikinean egindako obrak legeztatze.

235/2013.- EHSFri lizentzia emotea irailaren 28 eta 29an Euskal Herriko Txapelketa egiteko.

236/2013.- Gailur Alde S.L. enpresari erabilera aldatzeko lizentzia emotea Uribe 10. zenbakian dagoan eraikineko beheko solairuko lokaletan; halan, merkataritza lokalak izatetik BOE izatera pasatuko dira.

237/2013.- Gailur Alde S.L. enpresari erabilera aldatzeko lizentzia emotea Uribe 12. zenbakian dagoan eraikineko beheko solairuko lokaletan; halan, merkataritza lokalak izatetik BTE izatera pasatuko dira.

238/2013.- Rafael Garay Martínez jaunari beharrezko lizentzia emotea, Basigoko Bide Nagusia kaleko 77.eko "Rosario Enea" eraikineko teilatua aldatzeko egindako obrak legeztatze.

3.- HERRIKO URIGINTZA PLANGINTZA OROKORRA BERRIKUSTEN HASTEAN, BETI BE EUSKO JAURLARITZAKO LURZORU ETA URIGINTZAKO BAGILAREN 30EKO 2/2006 LEGEAREN ARABERA, HERRITARREN PARTAIDETZA PROGRAMEA BARRUAN DALA; ETA, HORI DALA ETA, UDALBATZAREN 2012KO GARAGARRILAREN 12KO EBAZPENA ALDARAZOTEA EBATZI.

Aitor Apraiz alkate jaunak, ondorengo hau adierazo dau:

Bakioko Udalbatzak, 2012ko uztailaren 12an egindako bileran, ondorengo erabagia hartu eban: Bakioko urigintza plangintza Eusko Jaurlaritzako Lurzoru eta Urigintzako bagilaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko, espedienteari hasikera emotea, lege horren bigarren xedapen iragankorrak horretara behartzen dauala-eta. Era berean, herritarrek parte hartzeko programea be onartu zan,

Alkatetzaren probidentzian ageri dan lez, erabagi hori aldarazotea proposatzen da, herriko urigintza plangintza orokorraren egokitzapena izapidetu beharrean, berrikuspen espediente izapidetzeko. Eta horren arrazoia hau da: egokitzapenak herriko urigintza plangintza 2/2006 Legeak ezartzen dauan parametroetara egokitzea dakar beste barik, baina aldarazpena zabalagoa izango da, asmoa aldarazpenok uri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian baino ez egitea dan arren.

Izan be, hasikera batean helburu bakarra herriko plangintza lege horretara egokitzea bazan be, legera egokitzeak urigintzako beste atal batzuk be aldatzea dakarrela esan deusku Foru Aldundiak, esaterako, sistema orokorrak, herriko azpiegiturak, etxebizitzaren tipologia, eta abar. Horrela bada, egokitzapenak, halabeharrez, urigintzaren egiturazko antolamenduari eragingo deutson ezker, aldarazpenaren aurreikuspen horrek herriko urigintza plangintza berrikustera behartzen dau.

Segiduan, Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU/BAKIO taldearen izenean, hauxe adierazo dau: *Bildu ados dago herriko urigintza plangintza orokorra berrikusteko, lehendik esanda daukan modura. Baina ez dago ados EAJk herritarrek parte hartzeko programeagaz aurkeztutako, 2012ko garagarrilaren 12ko udalbatzarrean azaldu eban modura. Izan be, parte hartzea herritar guztientzat izan behar da, eta udalbatza horretan onartu zan programea eta orain onartzea proposatzen dana berdinak izanik, ez dau gizabanakoaren parte hartzea bermatzen, alkarteena baino.*

Alkateak horrerri erantzunez, dino: *programan aurreikusten diran urratsak gitxiengoak dira; hau da, urigintza plangintza orokorra idatziko dauan enpresea aukeratzeko lehiaketa izapidetu behar dan ezkerro, lizitatzailleek programea oinarriztat hartu eta horren garapen proposamena egin beharko dabe. Ostean, udalak aukeratu beharko dau zein da egokiena. Horrenbestez, herritarren parte hartzeri buruz askoz gehiago ezin dogu esan, harik eta programea garatuko dauan enpresea aukeratu arte*

Felixek dinotso batetik, enpresaren batek programa zabalagoa aurkeztuko dauan edo ez ikusteko dagoala, ze enpresek udalak gaur bertan onartutakoa proposatu daikielako beste barik; eta, bestetik, programan azalpen kontrajarriak dagozala. Izan be, azken horrezaz, adierazo dau:

Programeak, aurreko lerroaldeetan, plangintzaren osaeran herritarren parte hartzea ezinbestekotzat jo arren, parte hartze hori zelan egingo dan zehazteko orduan, agiri horretan jasoten da herriko alkarteei gutuna bialduko jakela plangintzaren berrikuspenaren helburuen barri emonaz eta iradokizunak eta beharrianak aurkezteko gonbitea eginaz; hau da, ez da bermatzen herritarrak gizabanako modura parte hartuko dauanik. Beraz, aukera hori herriko alkarteei emoten jake, eurok herritarra ordezkatzan daben neurrian funtsezko parte-hartzaileak dirala argudiatuz.

Ametz Jauregizar zinegotziak, adierazo dau:

Udalak ezin dau esan, plangintzari iradokizunak eta ekarpenak egiteko orduan, alkarteek funtsezkoak diranik, ze ekarpenak eta iradokizunak subjektiboak diran ezkerro, herritar bakotxak azaldu beharrekoak izan behar dira, beti be daukan eritxiaren arabera; beraz, uste dogu, ez dala zuzena herritarrari jagokon eginbeharra alkarteen esku ixtea, ze horrela herritarren parte hartzea murriztu baino ez da egiten.

Ganera, udaleko zinegotziek herritarrek aukeratutakoak izanik, eta, beraz, azken horreen ordezkariak diran ezkerro, haren eginbeharra da herriarentzat eragin handia izango daben egitasmoetan — urigintza plangintza esaterako — herritarren parte hartzea bermatzea, eta, hortaz, hemendik dator udalak herritarren gitxiengo parte hartzea ageri dan programa bat onartu beharrean (parte hartze horren egokitasuna edota garapena aukeratuko dan enpresaren esku itxiz) programa osotuagoa onartu beharra, hau da, herritarren parte hartzea aurretiaz guztiz bermaturik; beraz, parte hartzea minimoa ezin da izan, maximoa baino.

Idazkariak, bere aldetik, adierazo dau Lurzoru eta Urigintzako bagilaren 30eko 2/2006 Legearen 108. artikuluan jasoten da udalak herriko urigintza plangintza berrikusteko erabagiaz batera herritarrek parte hartzeko programea onartu behar dabela. Programea gitxiengoa izango da ze plangintza idazteko hautatutako enpresek proposatu beharko dau zelan osotu eta gauzatu.

Ametsek dino plangintzaren esleipenera aurkeztutako lizitatzailen proposamenak gaur onartu gura dan plangintzara mugatu daitekezela.

Gorka Renteria zinegotziak idazkariari hauxe galdetu deutso: plangintzaren aurrerapen-agiria jendaurrean dagoan artean, alegazinogile batek edo batzuk aurkeztutako arrazoibideek udalak onartu ezker; hasikeran onartzeko aurkeztuko dan urigintza plangintza ia arrazoibide horreetara moldatuta egon daiteken.

Idazkariak dinotso udalak aurrerapen-agiria onartu eta bi hilabetez jendaurrean ipini behar dala herritarren iradokizunak eta alternatibak jasoteko, eta, ostean, udalbatzak, ondo baderitxo, eurretari bat edo batzuei oneritxia emon eta urigintza plangintza idazteko oinarriak izango diran erispideak eta helburuak zehaztu beharko dauz (2/2006 zk. Legearen 90. artikulua). Beraz, aurrerapen-agiria eta, ostean, hasikeran onartuko dan plangintza ez dira bat etorri behar.

Azkenik, zinegotzien artean eztabaida luzearen ostean, talde bakotzak berenari eutsi deutso; eta, horrela bada, bertaratutako guztiak herriko urigintza plangintza berrikusi beharraz ados dagozan arren, herritarren parte hartzeari buruzko programaren ganean ez dira ados ipini. Izan be, EAJ taldea, onartzeko aurkeztutako programeagaz bat dator alkateak emondako azalpenetan oinarrituz, BILDU taldea, ostera, programeagaz ez dago ados herritarren parte hartzea behar dan lez bermatzen ez dalako, protagonismoa herriko taldeei emoten deutesen neurrian.

Alkateak bozkatzeko agindua emon dau, eta horrerri ekinik, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz, hau da, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Bakioko Udalbatzak, erabagi hau hartu dau:

LEHENENGOA: Herriko urigintza plangintza orokorra berrikusten hastea, beti be Eusko Jaurlaritzako Lurzoru eta Urigintzako bagilaren 30eko 2/2006 Legearen arabera.

BIGARRENA.- Ondorengo arloetan eskumenak daukiezan Bizkaiko Foru Aldundiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko organoei txostenak eskatzea, horretarako espedientea bialduz; a) babes zibila; b) ingurumena (ingurumenari buruzko agiria bialdu daian); c) kultura ondarea; d) natur ingurua; urigintza antolamenduak babestu behar dauzan kultur ondarea eta natur ingurua dala-eta ingurumen baldintzagarrirei eta arrisku egoerei buruzko informazioa.

HIRUGARRENA.- Herritarren partaidetzari buruzko programea onartu, eta akta honeri erantsi.

LAUGARRENA.- Alkateari, edo horren legezko ordezkariari, ahala emon, erabagi hau beteteko behar diran agiriak sinatzeko.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, ondorengo erabagiari buruz aldeko botoa emon dabe: *Herriko urigintza plangintza orokorra berrikusten hastea, beti be Eusko Jaurlaritzako Lurzoru eta Urigintzako bagilaren 30eko 2/2006 Legearen arabera*. Onartzeko aurkeztutako herritarren parte hartzeko programari jagokonez, barriz, ezezkoa emon dabe, azalpen zatian emon dabezan argudioetan oinarrituz.

4.- 2013KO URTARRILAREN 1ETIK BAGILAREN 30ERA ARTEKO EPEARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON.

Zinegotziek gai horrerri buruzko agiriak daukiezan ezkerro, bai eta informazino batzordean be argibideak emon ziran ezkerro, jakinaren ganean geratu dira. Laburbilduz ondorioztatzen da aurrekontu iraunkortasuna eta gastu araua beteten dirala.

Amets Jauregizarren eskabideari erantzunez, Alkateak gastu araua zer dan azaldu dau esanez: aurreko ekitaldiko gastu ez-finantzieroa (1.etik 7. kapitulura arte, 3. kapitulua izan ezik), diru-laguntza finalistak eta besterenganatzeetatik lortutako sarrerak deskontatua ezin dabe %1,7ko gehikuntza ekarri, aurreko ekitaldiko gastu konputagarriari jagokonez.

5.- ESKAERAK ETA GALDERAK. Ez da egin eskaerarik edo galderarik.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:50an emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria